

# KOSTUAK



Aritz Sagarna  
Itoitz Salaberria  
Xabier Zamora  
Olatz Sanchez

Negozio bat aurrera eraman ahal izateko zein kostu dituen adierazi beharra dago. Orain arte hartutako erabakiek, kostu bat edo beste eragingo dute gure enpresa ideian. Guzti horien artean, bereziki argi eduki behar ditugun kontzeptuak hauek dira: funtsezko baliabideak, funtsezko elkarteak eta funtsezko jarduerak. Proiektuan zehar sakonki landu ditugu puntu edo kontzeptu hauek eta erlazio zuzena dute kostuekin. Horiek garrantzitsuak izango dira orain eta aurreratzean gure enpresaren ideia egoki finkatzeko.

Kostuak ikaragarriko garrantzia dute, esan bezala, gure proiektua burutzeko oztopoa izan daitezkeelako. Gure kasuan kostuak gehienbat aldakorrak izango lirateke, inprimagailuaren mantenua eta hauen ekoizpena, tinta, papera, elektrizitatea, azpiegitura teknologikoak



etab. beharraren arabera kostu gehiago edo gutxiago eragingo dizkigutelako. Horregatik zaila izango litzateke hauek kalkulatzeko. Beste batzuk ordea, kostu finkoak izango lirateke (gutxienekoa). Enpresan lan egingo duten langileen soldata eta behar izanez gero alokairua. Beraz, nabarmena da kostu aldakorrak askoz ugariagoak direla, kostu gehiengoak osatzen baitituzte.

Kostuak bultzatutako negozio-eredu bat izango litzateke, izan ere, hasiera batetik ez dugunez erabiltzaile asko izango, komeni zaigu prezio erakargarriak ezartzea. Ondoren, baliteke estatus jakin bat edukita prezioak igotzea, baina printzipioz ez da hori gure ideia; zerbitzu eraginkor eta errentagarri bat sortu nahi dugulako. Zerbitzu konkretu honi dagokionez, jendeak ez du ikaragarriko “emaitzarik” espero, funtzionalitate basikoa baizik. Horregatik ez litzaiguke komeniko prezioak igotzea

Azkenik, eskala-ekonomiei eta hedapen-ekonomiei dagokionez, gure kasuan ezingo lirateke aplikatu edo oso-oso zaila izango litzateke. Hau da, guk eskaintzen duguna zerbitzu bat denez, ezin dugu lortu kostuak murriztea ekoizpen handia lortuta. Era berean, aipatu dugun bezala, gure zerbitzuak funtzionalitate bakarra du: inprimagailu azpiegitura eraginkor bat sortzea, ikasle zein irakasle ororen eskura dagoena. Horregatik bi baliabide hauek ezin genituzke aplikatu.

Aipatutako guztia laburbilduz, izango genituzkeen kostu gehienak aldakorrak direla kontuan izanda, gertutik aztertu beharko ditugu edozein momentutan aldaketak jasan ditzaketelako. Proiektua bideragarria izateko, kostuak murrizteko aukera oro aprobetxatu beharko dugu.